

Geografia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



**UNIBERTSITATERA
SARTZEKO PROBAK**

UPV/EHU

2016



Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da:

1. Ariketa praktikoa: 4 puntu.

Mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko dira kontuan.

2. Gai bat garatzea: 4 puntu.

Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

3. Kontzeptu geografiko batzuk definitzea: 2 puntu.

Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke. Definizio bakoitza 0 eta 0,5 puntu bitartean kalifikatuko da.

Kontzeptuak argi eta zehatz definitzea hartuko da kontuan.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

La valoración total de la prueba será de 10 puntos:

1. Prueba práctica: 4 puntos.

Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

2. Desarrollo de un tema: 4 puntos.

Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

3. Definición de conceptos geográficos: 2 puntos.


Cada concepto debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas. Cada definición se valorará de 0 a 0,5 puntos.

Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.



A AUKERA

1. Klimogramari eta dagokion landaredi potentzialari buruzko iruzkina. (4 puntu)



Iturria: Meteorologiako Estatu Agentzia (AEMET).


2. Hiri-egitura: alde zaharra, zabalgunea eta periferia. (4 puntu)

3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):

- Erromako Ituna (0,5 puntu)
- Bizi-itxaropena (0,5 puntu)
- Abeltzaintza estentsiboa (0,5 puntu)
- Tolestura-mendikatea (0,5 puntu)



1. Espainiako adin-piramideari buruzko iruzkina. (4 puntu)



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala (INE).

2. Industriaren kokapena Euskal Autonomia Erkidegoan. (4 puntu)

3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):

- Europar Batasuna (0,5 puntu)
- Metropolialdea (0,5 puntu)
- Abeltzaintza intentsiboa (0,5 puntu)
- Mendigune zaharra (0,5 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

Irizpide espezifikoak

A AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Kontuan hartuko da:

- Termiko eta prezipitazio-erregimenen urte-sasoiko deskribapena lehorraldiak eta eurialdiak, hotzaldiak eta beroaldiak eta urte-sasoiko aldeak nabarmenduz. Aipatutako ezaugarrietatik behatoki honen klima eta bere klima-barietateari dagokion kokapena (herri-gaindiko mailan) zehaztu eta ondorioztatu. Adierazi dagokion landaretza potentziala.

Klima mediterraneo lehorra, subdesertikoa edo estepakoa. Prezipitazioak oso urriak (150-300 mm tartean). Atlantikoko borraskeetatik babestua Mendikate Betikoen eraginez, Mediterraneokoak ez dira ohikoak eta Afrikatik datozen aire-masa lehorrak sarriak dira. Urteko batez besteko tenperatura 17 °C-18 °C ingurukoa da. Neguak oso leunak, beti 10 °C baino gehiago. Iberiar penintsularen HEko kostako estepa beroa. Estrepa (behe-belarrak eta satraka arantzatsuak: palmondoa, ezkaia, espartzudia eta zainzuria). Behatokia: Almeriako aireportua.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

Hiri-eremu desberdinen morfologia eta funtzioak bereiztea baloratuko da, beren ezaugarri, bilakaera eta problematikarekin.

- **Alde zaharra**
 - herentzia historikoa
 - planoen aniztasuna



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

- Errenazimendu, Barroko, Ilustrazio eta industri aldiko aldaketak.
 - Betetasun, gainbehera, segregazio eta gizarte problematikak, etab.
 - Errehabilitazio politikak.
- **Zabalgunea**
 - burges-zabalgunea: lauki-planoa, morfologia eraikitzailea, burges egoitza funtzioa.
 - hiriko funtzio garrantzitsuenen egoitza (CBD)
 - egoitza funtzioaren beherakada
 - **Periferia**
 - egoitzaldeak: mota desberdinak eta gizarte-segregazioa
 - dentsitate gutxiko egoitza-guneak (bizitza bakarreko etxeak, adosatuak)
 - periferiako industria-guneak: industria-poligonoak, industria-espazio berriak
 - merkatal, ekipamendu eta azpiegitura guneak.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Erromako Ituna: Europako Energia Atomikoaren Erkidegoa (EURATOM) eta Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) sortzeko Belgikak, Herbehereek, Luxenburgok, Frantziak, Alemaniako Errepublika Federalak eta Italiak, 1957an, sinaturiko akordioak .

Bizi-itxaropena: belaunaldi bat zenbat urtetan biziko den batez besteko estimazioa, beti ere belaunaldi hori jaio zen urteko hilkortasun baldintzak berean mantentzen badira.

Abeltzaintza estentsiboa: inguru fisikoaren menpe dagoen abeltzaintza ekoizpen sistema, lurrazaleko abelburu dentsitate baxua izanik eta abereek larre eta bazkaleku naturaletan elikatzen direlarik. Oro har, arraza autoktonei eta lan-teknika tradizionalari lotuta.

Tolestura-mendikatea: aro sekundarioan eta tertziarioan itsas arroetako material-sedimentuak alpetar orogenesiaren ondoren tolesterakoan sorturiko mendiak.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Hurrengo alderdien tratamendua balioetsiko da:

- Piramideak aurkezten duen itxura
- Populazio zaharraren artean: bere bizi-itxaropen handienari dagokionez populazio femeninoaren pisu haundiagoa. 75-79 urtetako barran gerra-aldiaren aspijaiotza-tasa.
- Helduen artean: *baby boom* (1958-1977) belaunaldiaren eta hurrengo urteen zabaltasuna
- Belaunaldien murristapena urte hoietatik aurrera emankortasun eta jaiotza-tasaren jeitsieragatik
- zabaltze txikian nabarmentzen den orain dela gutxiko jaiotzaren berreskuratzea, oso xumea, 7-14 urte tartetean.
- Azken beherakada, krisia eta adin emankorreko belaunaldien kopuru txikiagoa

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

Hurrengo alderdien tratamendua balioetsiko da:

- Hiru hiriburuei eta Ibaizabal eta Deba haraneetako industria-korridoreen aipamena
- Bizkaiako eredu polarizatua Bilbo Handian, Arabako makrozefalia Gasteizen eta Gipuzkoako banaketa orekatsuagoa lurralde oran
- Industrializazio endogeneoan oinarritutako hiru fokuen sorkuntza: Markina-Ondarroa, Arabako Haranak, Arabar Errioxa.
- Industria-politika laguntzailea industria inguru berrien ezarketan (poligonoak) eta ETEentzako eraikinak prezio lehiakorretan eskainiz.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Europar Batasuna: Europako Elkarre Ekonomikoaren ondorengo bezala 1993an eraturako Elkarre ekonomiko eta politikoa. Europako 28 estatuz osatuta dago. Parlamentua, Europar Batasuneko Ministro Kontseilua eta Batzordea dira erabaki organo nagusiak .

Metropolialdea: hiri nagusi eta dinamiko batek eta haren eraginpean era osagarrian hazten diren inguruko beste batzuek osatzen duten multzoa..



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Abeltzaintza intentsiboa: ahalik eta denbora gutxienean abelburu gehien ekoiztea ziurtatzen duen sistema; inbertsioak eskatzen ditu abeltegietan, teknologian, eskulanean eta elikaduran. Abeltzaintza ukuiluetan eta pentsuz elikatua.

Mendigune zaharra/Mazizo zaharra: Paleozoikoko material kristalino eta metamorfiko zurrunek eratutako egitura geologikoa, alpetar orogenesisian deformatuak izan ziren konkor ala hausturaren bidez.

2016